

Jaun-andreok, legazpiarrok:

Oroimena ez da letra xehez idatzi daitekeen kontzeptua. Iraganeko gertakariak eta historia kolektiboari zor diogun begirunea ezinbesteko gaiak dira gure herria gizalegez ulertzeko. Horrez gainera, pertsonen gainean eraikitzen da, ezinbestean, oroimenaren arkitektura. Ez dago atzera begiratzerik nonhai jendea aurkitu gabe, izan ere, oroimenaren orubean bizigarri ditugu pertsonak. Historia ere pertsonen nondik norakoak ikertzen dituen zientzia da, banakakoa zein multzokakoa, gertakarien akuilu eta narratzaile, lekuko edo egile, irabazle edo galtzaile. Kontrakoa dirudien arren, hauek ez dira premisa antzuak

1936ko udaren amaieran Errepublikaren aurka matxinatu ziren tropak sartu ziren, indar handiz, Legazpiko kaleetan. Orduz geroztik, Euskal Herriko beste herri askotan bezala, samina eta beldurra hedatu ziren gure herrian zehar. Galtzaileen sufrimendua hamarkadez luzatu zen Legazpin, eta pertsona ugarik pairatu zuen errepresioa, bazterketa, umilazioa, ukazioa. Ehunka bizilagun sufritu zuten traturik doilorrena, eta gutxienez 42 hil zituzten gerra lubakietan edo harresi baten kontra fusilaturik. Legazpiko udaletxeak denak omendu nahi ditu. Xede horrekin, plaka honek ohorez hartuko du, gaurtik aurrera, guztien oroimena. Era horretan gure duintasun kolektiboak eta herri nortasunak zutabe berri bat aurkituko dute guztiona izan behar duen udaletxe honetan.

Denbora gehiegi eman dute orbelaren azpian, etxeetako sutondoan kateaturik, beren izen-abizenak, ametsak, ideiak, xuxurla leuna ezkutuko solasetan. Galtzaileen kontrako indarkeriak ahanzturari eman zion jarraibidea, eta egiaren lekukoa esku egokia topatu gabe urteak eman ditu Legazpin. Egi osoa zor zaio Euskal Herriari, eta nork berea kontatzerakoan, gurean egin berri duguna errepikatzen den bakoitzean, biziberritzen ditugu abagune trajiko hartan bizitza, hazienda edota askatasuna galdu zituzten legazpiarrak.

Aro berri bat itxaropenez beterik datorkigun une historiko honetan, askatasunaren alde jardun zuten pertsona guztien aldarria egitea oso garrantzitsua da. Azken finean, haiek izan zirelako gara gu. Etorriko diren belaunaldi berriei askatasun testigantza hauek zor dizkiegu, denok nahi dugun pakea egi osoaren, justiziaren eta benetako demokrazioaren ondorioa izan dadin. Nolanahi ere, azken hitza gerran eta gerra ostean eraso faszistaren ondorioak pairatu zituzten legazpiarren omenez hartu nahi dut. Gontzal Mendibil kantariak aspaldi abestu zuen:

Nire isiltasunak zazpi giltza ditu,
zazpi giltza handi. Nire isiltasunak
munduko dolorea dolore bizi du.

Gure asmoa, omenaldi xume hau dela medio, inoiz isiltasunak ezkutatu zuena agritara ekartzea izan da. Legazpiar askoren dolorea eta dolua aintzat harturik, beren emana eta duintasuna gu guztion itsasargi izaten jarrai dezala eskatu nahi diet gure bizilagunei, itzala eman nahi duenak argia hartu behar baitu.

Eskerrik asko guztiei, bereziki 1936ko gertakari latz haietan bizitza galdu zuten legazpiarren senitartekoei. Haietzako gure begirunea eta elkartasuna.